AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2093

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 19koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Edurne Aguirre Oteiza andreak goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lege horrek egotzitako aginpideez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Edurne Aguirre Oteiza andreak Zerbitzu Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari lanpostutik kentzea (520010 kodea, 117 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2012ko maiatzaren 2tik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri dakioke ebazpena eman duen organoari, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 19a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.